

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Alkatetzaren 2023ko abuztuaren 3ko ebazpenaren laburpena (2023/512 Dekretua), zeinaren bidez Amurriko udalerrian B motako prestakuntza beken bidez enplegua sustatzeko laguntza ekonomikoen deialdia egiten baita (Lanbideren jarraibideari atxikiak, 1543/2011 Errege Dekretuaren esparruan)

BDNS(Identif.): 714989.

Bat etorritik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/714989>).

Onuradunak

Amurriko udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta graduak, goi-mailako edo erdi-mailako prestakuntza zikloko unibertsitate ikasketak amaitu edo profesionaltasun ziurtagiri bat badute, beka hasten den unean 25 urte beteta ez badituzte edo Gazte Bermerako Sistemaren Fitxategi Nazionalean izena emanda daudenen kasuan 30 urte beteta ez badituzte, eta deialdiko betekizun guztiak betetzen badituzte.

Helburua

Deialdi honen xedea da gazte langabeak laneratzeari, enpresetan praktikak eginez.

Oinarri arautzaileak

Gazte langabeentzako prestakuntza beka emateko oinarri arautzaileak (2023ko uztailaren 10eko ALHAO, 80. zk.).

Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 39.840,00 eurokoa da, eta gastua 23.1.23.1.24116.480 aurrekontu partidari dagokio.

Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hamabost egun balioduneko epea. Garaiz eta forma egokian aurkezten diren eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Amurrio, 2023ko irailaren 4a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA